



EBAZPENA, 2016ko maiatzaren 16koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak deitzen dira, baita aipatutako kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere, oposizio-aldiko proben egutegia eta epaimahaien eta batzorde barematzaileen egoitzak argitara ematen dituen (hautaketa-prozedurak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez deitu ziren)

2016ko otsailaren 5eko Aginduaren (EHAA, 2016ko otsailaren 9koa) bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dei egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak, baita aipatutako kidegoko funtzionarioek espezialitate berriak eskuratzeko ere.

Aipatutako Aginduaren 7. atalak ezartzen du txanda desberdinetako parte-hartzaileek oposizio-aldian egin beharreko probak. Era berean, 22. atalak ezartzen du espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran egin beharreko proba.

Aipatutako Aginduak 7.3.2 atalean ezartzen du oposizio-aldia 2016ko ekainetik aurrera hasiko dela, eta maiatzaren bigarren hamabostaldian Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez zehaztuko direla epaimahaien egoitzak, bai eta oposizio-aldia egiteko lekuak eta datak ere. Era berean, Batzorde barematzaileen egoitzak argitaratzen dira.

Horren arabera,

EBATZI DUT

1.- Egutegia

1.1.- Gai bat idatziz garatu (Lehenengo probaren B zatia): sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako parte-hartzaileentzat

2016ko ekainaren 18an egingo da Barakaldoko (Bizkaia) Bilbao Exhibition Centreren (BEC), 08:30ean.

1.2.- Proba praktikoa: sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako parte-hartzaileentzat (Lehenengo probaren A zatia) eta goragoko talde bateko kidegoetara iristeko prozedurako parte-hartzaileentzat

2016ko ekainaren 18an egingo da Barakaldoko (Bizkaia) Bilbao Exhibition Centreren (BEC), 12,00etan.



1.3.- Ahozko proba: sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako (Bigarren proba), goragoko talde bateko kidegoetara iristeko prozedurako eta espezialitate berriak eskuratzeko prozedurako parte-hartzaileentzat

Oposizio-aldiko lehen proba gainditu dituzten sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako izangaien behin betiko zerrendak argitara eman ondoren, hasiera emango zaio aipatutako txanden bigarren probari (lehen proba gainditu duten izangaiekin), goragoko talde bateko kidegoetara iristeko prozedurako ahozko proba, bai eta espezialitate berriak eskuratzeko prozedurako proba ere.

Sarbide libreko txandetako eta desgaituentzat gordetako txandetako, bai eta goragoko talde bateko kidegoetara iristeko prozedurako izangaien kasuetan ere, Epaimahaiak lehendabizi egin behar dituzten izangaien zitazioak iragarriko dituzte, eta egokitzen jotzen diren beste gai batzuk ere; 2016ko otsailaren 5eko Aginduaren 7.3.2 atalak ezartzen duen arabera izango da. Espezialitate berriak eskuratzeko prozedurako parte-hartzaileen kasuan, aipatutako Aginduaren 21 eta 22. atalek ezartzen duten arabera izango da.

Zitazioak ondorengo tokietan egingo dira:

- probak egingo diren ikastetxeetako Iragarki-tauletan (epaimahaien egoitzak dira).
- dagokion epaimahaiaren “Iragarki-taula”-n (informazio-ondorioetarako). Taula hori kontsultatu daiteke:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) “:

“EPE2016. Sartzeko eta iristeko hautaketa-prozedura” edo, kasuaren arabera, “EPE2016.Espezialitate berriak eskuratzeko hautaketa-prozedura”
-> "Hautaketa-prozesuaren jarraipena" (Kidegoa eta Espezialitatea hautatu)
-> “Epaimahaiak” – izangaiari dagokion epaimahaiaren zenbakia adierazi –
“Iragarki-taula”.

Behin epaimahaien aurrean banakako jarduketak hasita, izangaiantzako hurrengo deialdiak ere probak egingo diren ikastetxeetan iragarri beharko dira, hasi baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez. Era berean, informazio moduan, Interneteko aipaturiko helbidearen bidez iragarriko dira.

Proba hau epaimahaien egoitzetan egingo da.



2.- Epaimahaien egoitzak

ESPEZIALITATEAK	IKASTETXEA	HELBIDEA	LURRALDE HISTORIKOA
Latina	IES MIGUEL DE UNAMUNO BHI	LICENCIADO POZA, 1. 48008 BILBAO	BIZKAIA
Musika	IES MIGUEL DE UNAMUNO BHI	LICENCIADO POZA, 1. 48008 BILBAO	BIZKAIA
Gaztelera eta Literatura	IES AIXERROTA BHI	PEÑA SANTA MARINA, 14. 48993 GETXO	BIZKAIA
Geografia eta Historia	IES MENDEBALDEA BHI	DONOSTIA 3. 01010 VITORIA-GASTEIZ	ARABA
Matematikak	IEFPS POLITÉCNICO EASO POLITEKNIKOA GLHBI	AITZOL PARKEA 2. (antes Felipe IV) 20011 DONOSTIA	GIPUZKOA
Fisika eta Kimika	IES ARTAZA-ROMO BHI	AMAIA 28. 48940 LEIOA	BIZKAIA
Biologia eta Geologia	IEFPS POLITÉCNICO EASO POLITEKNIKOA GLHBI	AITZOL PARKEA 2. (antes Felipe IV) 20011 DONOSTIA	GIPUZKOA
Frantsesa	IES MIGUEL DE UNAMUNO BHI	LICENCIADO POZA, 1. 48008 BILBAO	BIZKAIA
Ingelesa	IES MIGUEL DE UNAMUNO BHI	LICENCIADO POZA, 1. 48008 BILBAO	BIZKAIA
Gorputz Hezkuntza	CIFP NICOLAS LARBURU LHII	ALDAPA, 3. 48901 BARAKALDO	BIZKAIA
Teknologia	IEFPS POLITÉCNICO EASO POLITEKNIKOA GLHBI	AITZOL PARKEA 2. (antes Felipe IV) 20011 DONOSTIA	GIPUZKOA
Euskera eta Literatura	IEFPS POLITÉCNICO EASO POLITEKNIKOA GLHBI	AITZOL PARKEA 2. (antes Felipe IV) 20011 DONOSTIA	GIPUZKOA
Hezkuntza Orientabidea	IES MENDEBALDEA BHI	DONOSTIA 3. 01010 VITORIA-GASTEIZ	ARABA
Informatika	CIFP ELORRIETA-ERREKA MARI LHII	LEHENDAKARI AGUIRRE 184. (San Inazio) 48015 BILBAO	BIZKAIA
Ekonomia	IES AIXERROTA BHI	PEÑA SANTA MARINA, 14. 48993 GETXO	BIZKAIA



3.- Batzorde barematzaileen egoitzak

ESPEZIALITATEAK	IKASTETXEA	HELBIDEA	LURRALDE HISTORIKOA
Frantsesa - Latina – Gaztelera eta Literatura	IES MIGUEL DE UNAMUNO BHI	LICENCIADO POZA, 1. 48008 BILBAO	BIZKAIA
Geografia eta Historia - Musika	IES MENDEBALDEA BHI	DONOSTIA 3. 01010 VITORIA-GASTEIZ	ARABA
Biologia eta Geologia - Matematikak	IES USANDIZAGA- PEÑAFLOIDA-AMARA BHI	JOSÉ MARÍA SALAVERRÍA 8. 20010 DONOSTIA	GIPUZKOA
Fisika eta Kimika	IES ARTAZA-ROMO BHI	AMAIA 28. 48940 LEIOA	BIZKAIA
Ingelesa	IES MIGUEL DE UNAMUNO BHI	LICENCIADO POZA, 1. 48008 BILBAO	BIZKAIA
Gorputz Hezkuntza	CIFP NICOLAS LARBURU LHII	ALDAPA KALEA, 3. 48901 BARAKALDO	BIZKAIA
Teknologia	IES USANDIZAGA- PEÑAFLOIDA-AMARA BHI	JOSÉ MARÍA SALAVERRÍA 8. 20010 DONOSTIA	GIPUZKOA
Euskera eta Literatura	IES USANDIZAGA- PEÑAFLOIDA-AMARA BHI	JOSÉ MARÍA SALAVERRÍA 8. 20010 DONOSTIA	GIPUZKOA
Hezkuntza Orientabidea	IES USANDIZAGA- PEÑAFLOIDA-AMARA BHI	JOSÉ MARÍA SALAVERRÍA 8. 20010 DONOSTIA	GIPUZKOA
Ekonomia – Informatika	CIFP TARTANGA LHII	TARTANGA KALEA, 15. 48950 ERANDIO	BIZKAIA

Vitoria-Gasteizen, 2016ko maiatzaren 16an.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.